



**BATXILERGOA TEKNIKARI EDO GOI TEKNIKARIAREN TITULUA IZANDA EDO MUSIKA EDO DANTZAKO IRAKASKUNTZA PROFESIONALETAKO IRAKASGAIRIK BALIOKIDETUZ EGITEN DUTEN IKASLEEN DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA KUDEATZEKO HEZKUNTZA IKUSKARI NAGUSIAREN ARGIBIDEAK**

*Maiatzaren 3ko 2/2006 LEGE ORGANIKOAK, Hezkuntzarenak (2006/05/04ko BOE), 44.1., 50.2. eta 53.2. artikuluetan eta irailaren 6ko 127/2016 DEKRETUAK (2016/09/23ko EHAA), Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, 31., 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoaren arabera ematen dira argibide hauek, ondorengo egoeretan dauden ikasleen dokumentazio akademikoaren kudeaketa errazteko asmoz:*

**A) TITULU HAUETAKOREN BAT (ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO TEKNIKARIARENA, KIROL TEKNIKARIARENA ETA LANBIDE HEZIKETAKO TEKNIKARIARENA EDO GOI TEKNIKARIARENA) DUTEN ETA BATXILERGOA EGITEN DUTEN IKASLEAK:**

Aplikatzeko moduko legeria:

- Abenduaren 26ko 1105/2014 errege dekretua (2015/01/03ko BOE), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren oinarritzko curriculuma ezartzen duena. 26. art.
- Ekainaren 2ko 562/2017 errege dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren eta Batxilergoaren tituluak lortzeko baldintzak arautzen dituena, abenduaren 9ko 5/2016 legegintzako errege dekretuak, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 lege organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko premiazko neurriei buruzkoak, xedatutakoaren arabera. 3.3.a art.

Matrikulazioa:

127/2016 dekretuak 15. artikuluan ezartzen dituen ondorengo irakasgaietan bakarrik matrikulatu behar dute ikasle horiek Batxilergoko 1.ean:

Euskara eta Literatura I, Gaztelania eta Literatura I, Filosofia, 1. Atzerriko Hizkuntza eta Gorputz Hezkuntza. Gainera, eta aukeratutako batxilergo-modalitatearen arabera, ondorengoetako batean matrikulatuko zaizkie: Matematikak I, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikak I, Latina I edo Artearen Oinarriak I (guztira 6 irakasgai).

127/2016 dekretuak 16. artikuluan ezartzen dituen ondorengo irakasgaietan bakarrik matrikulatu behar dute ikasle horiek Batxilergoko 2.ean:

Euskara eta Literatura II, Gaztelania eta Literatura II, Espainiako Historia eta Atzerriko Hizkuntza II. Gainera, aukeratutako batxilergo-modalitatearen arabera, ondorengoetako batean matrikulatuko dira: Matematikak II, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikak II, Latina II edo Artearen Oinarriak II (Guztira 5 irakasgai).

Batxilergoaren batez bestekoa kalkulatzeko:



Ebaluazio-aktak jasotzen dituen aplikazio informatikoak ez du ikasle horien kasuan batez bestekoaren balioa kalkulatu eta tarte hori zuri uzten du. Kasu horietan batez bestekoa kalkulatu du ikastetxeak eta, horretarako, **ikasleak matrikulatu diren 11 irakasgaiak besterik** ez ditu erabiliko, eta 0tik 10erako eskala batean, bi dezimalekin eta ehunenera borobildua, adieraziko du. Balore hori sartuko da aplikazioan, horretarako egokitutako lehiatilan, eta hortik automatikoki espediente akademikora eta historialera eramango da (ziurtagiri digitala).

#### Batxiler-titulua:

Egin duten modalitatearen irakasgai komuna dagokion modalitatean eskatuko da ikasle horien batxiler-titulua (Matematikak I eta II Zientziak modalitateko, Gizarte Zientziak Aplikatuak Matematikak Gizarte Zientzien bidezko Humanitate eta Gizarte Zientziak modalitateko, Latina Humanitateen bidezko Humanitate eta Gizarte Zientziak modalitateko eta Artearen Oinarriak Arteak modalitateko).

### **B) MUSIKA EDO DANTZAKO IRAKASKUNTZA PROFESIONALETAKO IRAKASGAIK, GAINDITU BADITUZTE EDO ALDI BEREAN EGITEN BADITUZTE, BALIOKIDETUZ BATXILERGOA EGITEN DUTEN IKASLEAK.**

#### Aplikatzeko moduko legeria:

- Abenduaren 22ko 1577/2006 ERREGE DEKRETUA, maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 lege organikoaren bidez araututako Musikako irakaskuntza profesionalen curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dituena (2007/01/20ko BOE). 20.4. art.
- Otsailaren 27ko 242/2009 errege dekretua, Musika eta Dantzako irakaskuntza profesionalen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren arteko baliokidetasunak ezartzen dituena, baita maila edo errendimendu handiko kirolaria izateak eta Dantzako irakaskuntza profesionalek Gorputz Hezkuntza arloan izan behar dituzten ondorioak ere (2009/02/28ko BOE).
- Uztailaren 13ko 194/2010 DEKRETUA (2010/07/22ko EHAA), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko arlo zehatz batzuen eta Musika eta Dantzako Irakaskuntza Profesionaltako irakasgai desberdinen arteko baliokidetasunak ezartzen dituena; halaber, maila edo errendimendu handiko kirolaria izateak Gorputz Hezkuntza arloan eta Dantzako Irakaskuntza Profesionaltako ikasleentzat izan behar dituen ondorioak zehazten ditu.
- 2017-2018ko ikasturtearen antolaketa Bigarren Hezkuntzako institutuetan. Hezkuntza sailburuordearen ebazpena. 2.2.4.II. puntua.

#### Matrikulazioa:

Batxilergoan matrikulatuta dauden eta aldi berean Musikako edota Dantzako irakaskuntza profesionalak egiten dituzten ikasleek izango dute Batxilergoko kurtso bakoitzean eman behar dituzten bi arlo espezifikoak eta gaindituta dituzten irakaskuntza horietako arloak baliokidetzeko aukera.

Horretarako, lehen kurtsoko ondorengo irakasgaien arteko bitan matrikulatu behar dute: Anatomia Aplikatua, Musika Hizkuntza eta Praktika, Analisi Musikala I.

Eta bigarren kurtsoan Musika eta Dantzaren Historian eta Analisi Musikala II n matrikulatuko dira.



Ikasleek Batxilergoa egiten duten ikastetxeetako zuzendaritzek arlo horietan matrikulatuko dituzte ikasle horiek, arlo horiek emateko talde batek egon behar izan gabe, eta, geroago, ikasleak Musika edo Dantzako irakaskuntza profesionaletako irakasgaiak gaindituta baditu, edo gainditu izanaren ziurtagiria aurkezten badu, baliokidetasuna egingo dute.

#### Batez bestekoa kalkulatzeari:

Matrikulatzeko prozesua behar bezala gauzatu bada eta matrikularen aplikazioan irakasgai horiek baliokidetu daudela agertzen bada, automatikoki egingo du batez bestekoaren kalkulua aplikazioak eta, horregatik, ikastetxeak ez du inolako jarduera espezifikorik egin beharko.

Aplikazioak baliokidetu irakasgaiak kontuan hartu gabe batez bestekoa lortzen du, kalkulua gainontzeko ikasgaien notekin eginez. Batez bestekoa automatikoki espediente akademikora eta historialera pasako da (ziurtagiri digitala).

#### Batxiler-titulua:

Ikasleak egin duen modalitateko eskatuko da titulua, Batxilergoa ohiko eran egiten duten ikasleekin egiten den legez.

### **C) BATXILERGOA EGITEN DUTEN ETA, TITULUA ESKATZEKO UNEAN, MUSIKA EDO DANTZAKO IRAKASKUNTZA PROFESIONALETAKO TEKNIKARIAREN TITULUA DUTEN IKASLEAK.**

#### Aplikatzeko moduko legeria:

- Abenduaren 22ko 1577/2006 ERREGE DEKRETUA (2007/01/20ko BOE), maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 lege organikoaren bidez araututako Musikako irakaskuntza profesionalen curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dituena. 20.1. artikulua.
- Ekainaren 2ko 562/2017 errege dekretua (2017/06/03ko BOE), abenduaren 9ko 5/2016 legegintzako errege dekretuak, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 lege organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko premiazko neurriei buruzkoak, xedatutakoaren arabera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren eta Batxiler-tituluak lortzeko baldintzak arautzen dituena. 3.2. eta 3.3.b artikulua.

#### Matrikulazioa:

127/2016 dekretuak 15. artikuluan ezartzen dituen ondorengo irakasgaietan bakarrik matrikulatuko dira ikasle horiek Batxilergoko 1.ean:

Euskara eta Literatura I, Gaztelania eta Literatura I, Filosofia, 1. Atzerriko Hizkuntza I eta Gorputz Hezkuntza. Gainera, aukeratutako batxilergo-modalitatearen arabera, ondorengo arteko batean matrikulatuko zaizkie: Matematikak I, Gizarte Zientzietara Aplikatutako Matematikak I, Latina I edo Artearen Oinarriak I (guztira 6 irakasgai).

127/2016 dekretuak 16. Artikuluan ezartzen dituen ondorengo irakasgaietan bakarrik matrikulatuko dira ikasle horiek Batxilergoko 2.ean:

Euskara eta Literatura II, Gaztelania eta Literatura II, Espainiako Historia eta 1. Atzerriko Hizkuntza II. Gainera, aukeratutako batxilergo-modalitatearen arabera, ondorengoen arteko batean matrikulatuko zaizkie: Matematikak II, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikak II, Latina II edo Artearen Oinarriak II (Guztira 5 irakasgai).

Batez bestekoa kalkulatzea:

Ikasle horien batez bestekoaren balorea jasotzen den tarte zuriz uzten du aplikazio informatikoak. Matrikulatuta dauden ikastetxeak egingo du kalkulua eta, horretarako, **batxilergoan matrikulatu diren 11 irakasgaiak eta musika edo dantzako irakaskuntza profesionaletako 5. eta 6. kurtsoetako irakasgaiak** erabiliko ditu, Otik 10erako eskala batean, bi dezimalekin eta ehungarrenez borobildua.

Horretarako, tokian-tokiko Musika Kontserbatorioaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du ikasle bakoitzak edo berorren legezko ordezkariak ikastetxean, egiten duen Musika eta Dantzako irakaskuntza profesionaletako espezialitatean 5. eta 6. kurtsoetan lortutako kalifikazioak agertuko dituena. Ziurtagiri hori digitalizatuko da eta espediente akademikoari, "agiria erantsi" tresnaren bidez, gehituko zaio.

Lortutako batez bestekoaren balioa eskuz sartuko da aplikazioan, horretarako egokitutako lehiatilan. Hortik automatikoki espediente akademikora eta historialera pasako da (ziurtagiri digitala).

Batxiler-titulua:

Ikasleak egin duen modalitate-irakasgai komunean (Matematikak I eta II Zientzietarako, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikak I eta II Humanitate eta Gizarte Zientzietarako, Gizarte Zientzien bidean, Latina I eta II Humanitate eta Gizarte Zientzietarako, Humanitateen bidean, eta Artearen Oinarriak I eta II Arteetarako) definitutako modalitatearen arabera eskatuko da titulua.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 26a



José Ángel Ayucar Senosiain  
Inspector General de Educación